



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAI O EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.23 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela kooperatiben arloan.

EAEko kooperatibismoak duen ahalmenari eta ekonomian duen eragin handiari esker, EAEko botere legegilea aspaldi hasi zen tresna juridiko propio bat lantzen, bat egingo zuena enpresa bat garatzeko modu berezi horrekin, alegia, enpresako kideen jarduera ekonomiko eta sozialak sustatuz eta kideen parte-hartze aktiboaren bidez haien beharrak ase. Horretarako, Kooperatibei buruzko otsailaren 11ko 1/1982 Legea argitaratu zuen, zeinak, segurtasun juridikoa ez ezik, babes ematen baitzion enpresa-proiektu handien garapenari, batez ere elkarlanaren sektorean.

Gerora, beharra sortu zenez araudia ekonomikoki eta sozialki garatutako kooperatibismo moderno batera egokitzeko, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legea eman zen. Legea, indarrean egon den hogeita sei urteotan, erabakigarria izan da eredu juridiko kooperatibo bat finkatzeko, EAEko kooperatibek egun dituzten premiei egokitua; era berean, legeak modua eman du kooperatibak merkatu gero eta globalizatuagoetan lehiatu eta kokatzeko beharrezkoak izan diren beste arau batzuk garatzeko.

Alabaina, legeria egoki bat premiazkoa izanik, arauak etengabe moldatu behar izan dira, eta, hori dela eta, 4/1993 Legea hainbat aldiz aldatu da erronka berriei erantzuteko: 1/2000 Legea, ekainaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzen duena; 8/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Kooperatiben Legea bigarren aldiz aldatzen duena; 6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa; eta garapen-arauak, hala nola 58/2005 Dekretua, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Lege-aldaketa horien artean sortu da duela gutxi 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena, zeinaren helburua baita 4/1993 Legea aldatuz joan diren lege-testuak moldatzeko beharri erantzutea, guztiak sistematizatzeko eta indarrean den araua erraz identifikatu eta aplikatu ahal izateko, hartara segurtasun juridiko handiagoarekin interpretatu eta aplikatuko baita kooperatibei buruzko araua.

Alabaina, ezinezkoa denez kooperatiben alderdi arautzaile guztiak lege bakarrean jasotzea, eta errealitate ekonomikoa gero eta globalizatuago dagoenez eta etengabe eta azkar aldatzen ari denez, beharrezkoa da, aurreko legearekin egin zen bezala, abian jartzea abenduaren 20ko 11/2019 Legearen arau-garapena.

Lehenago ere, abenduaren 20ko 11/2019 Legea aldatzen duen urriaren 7ko 5/2021 Legearen bidez, aldatu zen lege hori, aseguru- eta osasun-kooperatiben arloari zegokionez oinarritzko legeriara egokitzeko. Aldaketa horrekin, halaber, COVID-19aren osasun-krisiak sortutako egoera

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikokoaren** bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T5N58-TFCH

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: IDOIA MENDIA CUEVA | 2024/04/23 13:23:18

berrietara egokitu zen legea. Alde batetik, birmorfulatu egin zen kooperatibetako kide anitzeko organoen bilerak egiteko modua, bitarteko telematikoen bidez egiteko aukera emanez, baina benetan parte hartzeko eskubideak murriztu gabe; eta, bestetik, estatutu sozialak lege berrira egokitzeko epea luzatu egin zen 2023ko abenduaren 31ra arte, kontuan hartuta zer zailtasun izan ziren estatutuok bi urteko lehenengo epean onartzeko batzarrak egin ahal izateko, lehenengo epealdi hark bat egin baitzuen pandemia-garaiarekin eta haren murrizketekin.

Berrikiago, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen bidez ere, aldatu egin da Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea, kooperatibetako organoetan bazkideen presentzia orekatua lortzeko eta kooperatibetan berdintasun-planak ezartzeko xedez; hala ere, lege hori ez da 2024ko ekainaren 29ra arte indarrean jarriko, azken xedapenetako bosgarrenak ezartzen duenez.

Horrez gain, erregelamendu bidez ere garatu dira arauak. Lehenik eta behin, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 84/2023 Dekretuarekin, bide eman zaio erregistro-espeditenteen izapidetze elektronikoiari eta prozeduren sinplifikazioari, segurtasun juridikoa babestearekin batera, horixe baita erregistro-zerbitzuaren helburua. Geroago, Kooperatiben arloko ikuskapenari eta zehapen-prozedurari buruzko otsailaren 13ko 12/2024 Dekretuaren bidez, prozedura bat ezarri da kooperatiben antolamendu eta funtzionamenduaren berezitasunak arautzeko, zehapenen arloari dagozkionak barne.

Orain egin asmo den erregelamendu bidezko garapenarekin, beste pauso bat emango da 2019ko legegileak ezarri zuen lege-agindua betetzeko; hots, legea aplikatzeko eta garatzeko arauak emango dira, legean minimoki jasota dauden eta xehetasun handiagoa behar duten gaiak definitzeko asmoz, hartara segurtasun juridikoa bermatuko baitzaio pertsona juridiko kooperatiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari, bai eta hark egiten duen jarduerari ere, batez ere lege berriak jasotzen dituen berrikuntza nagusiei dagokienez.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 6/2022 Legeak arau-xedapenak egiteko prozedura ezartzen du, eta 12. artikuluan dio dagokion gaien eskumena duen sailburuaren aginduz hasiko dela prozedura.

Prozedura hori has dadila agintzeko eskumena bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuari dagokio, aintzat hartuta 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuaren bidez aldatua), bat etorritik Lan eta Enplegu Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuarekin.

Prozedurari ekin aurretik, eta bat eginez Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluekin eta lehen aipatutako ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluekin, aurretiazko kontsultaren izapidea egin zen Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bidez, jakiteko herritarrek zer iritzi duten arauaren beharraz eta egokitasunaz, helburuez, konpondu nahi diren arazoez eta bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, eta bat etorritik Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikuluekin, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. artikuluekin eta Lan eta



Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikularekin, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Agintzea has dadila Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura.

Bigarrena.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, 6/2022 Legearen 13.2. artikularekin bat etorritik, eta artikulua horretan jasotako ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena.- Agindu honen berri ematea LEGESAREA lankidetzaren gunean, hala xedatuta baitago Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian.

Laugarrena.- Proiektua agindu honen eranskinean jasotako irizpideen arabera egingo da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 22ko 6/2022 Legean adierazitako moduan.

Vitoria-Gasteizen, sinaduran ageri den egunean,

Idoia Mendia Cueva
Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo

AGINDUAREN ERANSKINA

Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua egiteko arauak eta irizpideak, aintzat hartuta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13. artikulua, zeinetan zehazten baita zer eduki jaso behar dituen prozedura hasteko aginduak.

1.- Arauaren xedea eta helburua.

Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen azken xedapenetako laugarrenak, lehenengo apartatuan, adierazten du Eusko Jaurlaritzak eman ahal izango dituela legea aplikatzeko eta garatzeko arauak, lan-arloan eskumena duen sailburuak proposatuta.

Aurrez esan den moduan, ezinezkoa da lege bakar batean ematea arauan aurreikusten diren alderdi guztiak. Sozietate-zuzenbidea, oro har, eta bereziki kooperatiba-zuzenbidea, oso zehatza da, berezitasun handia duelako. Hori dela eta, beharrezkoa da legea gehiago garatzea, hala legea interpelatu behar dutenek nola legearen hartzaileek errazago aplikatu ahal izan dezaten eguneroko jardunean, zenbait lege-xedapen nola ezarri behar diren argituta.

Asmoa da, beraz, modua ematea legea errazago aplikatu ahal izan dadin minimoki arautzen dituen alderdietan, eta, batez ere, aurreko legeriari dagokionez berrikuntzaren bat duten alderdi berritzaile eta anbiziotsuagoetan. Horren guztiaren helburua da ziurgabetasun juridikoari eta horrek dakartzan ondorioei aurre egitea. Dena dela, EAEko legegilearen asmoa inola ere ez da izan ziurgabetasuna sortzea; izan ere, ikusi denez, hasieratik irtenbide guztiak eman ditu beharrezkoa den segurtasun juridikoa bermatzeko, hala barne-harremanetan nola bazkide ez diren hirugarrenetik harremanetan, kooperatibei buruzko EAEko legeria tresna egokia izan dadin kooperatiben barne-harremanak eta kanpoko trafiko juridikoa finkatzeko.

Horretarako, argi zehaztu behar da zein den bazkideen posizio juridikoa eta zer harreman izango duten sozietatearekin, bai eta hirugarrenek zer harreman izango duten ere.

Arau-ekimenak, nagusiki, eragina izango du sozietate-araubidearekin lotutako alderdietan (jarduera kooperatibizatuko parte-hartzea, sozietate-baja eta eszedentzia-egoera) eta araubide ekonomikoarekin lotutakoetan (diru-itzulketa, borondatezko erreserbak, galeren egozpena, administrarien ordainsariak); eta, batez ere, eragina izango du legean minimoki arautzen diren kooperatiba-mota jakin batzuen forma juridikoa integratzeari dagokionez, eta horrek aukera emango du hazten ari diren sektore ekonomiko berrietan kooperatibak eratzeko, bai eta kooperatiba-sozietateak sortu eta sustatzeko metodologia berriak ezartzeko ere.

Horri esker, kooperatiba-forma juridikoa sustatu eta finkatuko da beste sozietate-mota batzuei dagokienez, jarduera ekonomikoak garatzeko. Kooperatiben sustapen horren arrazoia da kooperatiba-nortasuna islatzen duten elementuak (kontzeptua, balioak eta printzipioak) bateratzeak agerian uzten duela kooperatiba-sozietateen alderdi hibridoa; izan ere, tresna egokia dira garapen ekonomikorako, baina baita gizarte-ongizatea sustatzeko ere.

Erregulazioa berritzeko aukerei dagokienez (erregulaziorik ez onartzeko aukera barne), adierazi behar da ezen, EAEko Kooperatiben Legean bertan garapenari dagokionez jasota dagoen lege-aurreikuspena kontuan hartuta, ez dagoela tarterik egin nahi den arau-garapena baino aukera egokiago bat edo beste aukera bat planteatzeko.

Bestalde, argi dago beharrezkoa dela beste dekretu bat onartzea, zeinak ordeztuko baitu 58/2005 Dekretua, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen Erregelamendua onartzen duena –hori baita aurretik emandako araua–, aintzat hartuta, funtsean, dekretuaren edukiaren zati handi bat sartu dela legezko arau-testuan, arau berria ezarritako indargabetze-araubidez gain.

Azkenik, ez da eman behar estatutu bidezko bestelako soluzio erregulatzailerik, lege-arauan bertan zehaztuta baitago zein kasutan autorregulatu daitezkeen estatutuak.

2.- Bideragarritasun juridiko eta materialaren estimazioa.

Aintzat hartu da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Europar Batasunean indarrean den zuzenbidea, eta aztertu da proposatutako araua bat al datorren Estatuarekiko eta lurralde historikoetako foru-organoekiko zein toki-entitateekiko eskumenak banatzeko ordenarekin.

Dekretu berria, zeinaren hasiera agindu honen bidez xedatzen baita, bideragarria da juridikoki eta materialki; izan ere, berekin dakar, besteak beste, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen azken xedapenetako laugarrenean aurreikusten den arau-garapena.

Horrenbestez, ez dago oztopo juridikorik araua indarrean den esparru juridikoan txertatzeko, ez eta maila handiagoko arauarekin batera indarrean egoteko eta haiekin lotzeko ere. Gainera, dekretu-proiektu berria egiteak berekin dakar legez ezarritako ahalmenak, atribuzioak eta eskumenak baliatzea.

Hain zuzen ere, agindu honen hasierako zatian azaldu den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du arau honek jasotzen duen erregulazioa gauzatzeko, erregulazio horrek berekin baitakar EAEko Autonomia Estatutuaren arabera bereak dituen eskumenak baliatzea; izan ere, Estatutuak katalogatutako zenbait gai zehazten ditu, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusibokoak direnak (10. artikulua), bai Estatutuak adierazitako oinarri-arauak eta Estatuaren oinarritzko legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearaztearekin lotutakoak (11. artikulua), bai Estatuaren legeria betearazteari dagozkionak (12. artikulua).

Zehazki, proposatzen den arau-proiektu honek arautzen duen gaia Euskal Autonomia Erkidegoak kooperatiben arloan duen eskumen eskusiboaren babespean dago, EAEko Autonomia Estatutuaren 10.23 artikuluaaren arabera.

Halaber, autonomia-erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikulua dioenez, EAEko erakunde erkideen eskumena da EAEko Autonomia Estatutuaren arabera erkidegoari berari dagozkion gai guztiei buruzko legeak egitea eta betearaztea, non eta gai horiek estatutu horretan, aipatutako legean edo ondorengo lege batzuetan ez zaizkien lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen edo esleitzen.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) artikuluan (27/1983 Legea, autonomia-erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremanei buruzkoa), arau-proiektuak jorratuko duen gaia ez zaie berariaz eta eskusiboki lurralde historikoei esleitzen, eta ez dagokie lurralde historikoei ere gai hori garatzeko eta betearazteko eskumena, eskumen hori ez baitago lege-testu horren 7.b) artikuluan adierazitakoen artean.

Estatuarekiko eskumenak 11/2019 Legearen azken xedapenetako lehenengoan oinarrituta antolatzen dira, xedapen horrek aplikazio-eremua zehazten baitu, bat etorritu Estatuko araudian

aurreikusitakoarekin, eta, zehazki, Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 2.a) artikuluekin, zeinetan zehazten baita egoitza soziala EAEko lurraldean duten eta jarduera kooperatibizatua nagusiki lurralde horretan egiten duten kooperatibei aplikatuko zaiela legea.

Aztertu da ea proposatutako araua bat datorren hirugarren maila instituzionalarekin, hau da, eskumenak toki-erakundeekin banatzearekin, eta, horri dagokionez, kooperatiba-arloa ez da toki-erakundeen eskumena, ez propioa, ez transferitua, ez eskuordetua.

Azkenik, ez dago Europar Batasunaren araudirik, arau berriaren ondorioz eraginik izango duenik.

Hala ere, aintzat hartu behar da arau batean baino gehiagotan ezartzen dela kooperatibak sustatu behar direla, hargatik eragotzi gabe EAEko Autonomia Estatutuan kooperatiben arloan jasota dagoen eskumen eskusiboa. Alde batetik, Konstituzioak botere publikoei eskatzen die eraginkortasunez susta ditzatela enpresetan parte hartzeko modu desberdinak, kooperatibak barne, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legeak EAEko botere publiko guztiei eskatzen die lagundu dezatela, beren eskumenen esparruan, kooperatibismoaren berezko printzipio eta balioak aztertzen eta hedatzen, eta kooperatiben bidez jarduera ekonomikoak garatzeko modua emango duten ingurune sozial eta ekonomikoak sortzen.

Eskumen organikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, 6.1.c) artikuluan, Lan eta Enplegu Sailari esleitzen dio honako egiteko eta jardun-arlo hau: «Gizarte-ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioak».

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 9.1.k) artikuluen arabera, Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzaren zeregina da, besteak beste, gizarte-ekonomiaren, ekonomia solidarioaren eta kooperatibismoaren arloko jarduerak sustatu eta koordinatzea.

Azkenik, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzaren mende egonik, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzari dagokio, besteak beste, zuzendaritzaren jarduera guztiak programatzea, bultzatzea, zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea, eta goragoko organoei proposamenak egitea haien eskumeneko gaietan (7/2021 Dekretuaren 5. artikulua, 11. artikuluekin lotuta).

Erregulazio onaren printzipioetara egokitzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 129. artikuluen arabera, administrazio publikoek erregulazio onaren printzipio hauen arabera jokatu behar dute erregelamenduak egiteko ahalaz baliatzean: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia (6/2022 Legearen 10.3. artikuluan ere aipatzen dira printzipio horiek).

Premia

Beharrezkoa da EAEko Kooperatiben Legea gehiago garatzea eta bertan ezartzen den erregulazioa argitu eta hedatzea, bai legea interpelatu behar dutenek bai legearen hartzaileek errazago aplikatu ahal izan dezaten eguneroko kooperatiba-jardunean, halako moldez non ez baita ziurgabetasun juridikorik izango lege horrek minimoki arautzen dituen alderdietan edota hobeto interpretatu ahal izateko gehiago garatzea behar duten alderdi berritzaileagoetan.

Efikazia

Kooperatiben arloko sozietate-zuzenbidearen erregulazioa tresnarik egokiena da bermatzeko betetzen dela EAeko botere publikoek duten betebeharra, hots, kooperatiba-entitateak eta kooperatibek enpresak integratu eta ordezkatzeko dituzten egiturak sustatzea, bultzatzea eta garatzea.

Legeria egoki baten premia dagoenez, indarrean den araudia etengabe berrikusi behar da, indarrean dauden arauak helburuak zenbateraino betetzen dituzten egiaztatzeko. Hori dela eta, EAeko legegilea aspalditik ari da beharrezkoak diren arau-formulak ezartzen, eta, legearen garapen honekin, borondatea eta interesa agertu du kooperatiba-mugimenduak dituen erronka aldakorrei aurre egiten jarraitzeko.

Proporzionaltasuna

Proposatzen den ekimenak ezinbesteko erregulazioa jaso beharko du, eta interesdunei kalterik txikiena ekarriko diena; horretarako, egiaztatu beharko da ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik, edo interesdunei betebeharrak gutxiago ezarriko dienik.

Segurtasun juridikoa

Aurrez esan den bezala, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Espainiakoa zein Europar Batasunekoa, araugintza-esparru egonkorra, aurreikusteko modukoa, integratua, argia eta ziurtasunekoak bermatzeko, zeinak modua emango baitu esparru juridikoa errazago ezagutzeko eta ulertzeko, eta pertsonak eta enpresek errazago lan egiteko eta erabakiak errazago hartzeko; horrela, kooperatiben formula tresna egokia izango da ekonomia garatzeko eta kooperatiba osatzen duten pertsonak garatzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 129.4 artikulua kasuan kasuko gobernuari edo gobernu-kontseiluari ematen dio legearen erregelamendua garatzeko gaikuntza; hala ere, proposamena egitea Lan eta Enpleguko sailburuari dagokio.

Gardentasuna

Modua emango da hartzaile potentzialek aktiboki parte har dezaten erregelamendu-araua egiteko prozesuan (APAPELen 129.5 artikulua), lege jasota dauden ordezkari-erakundeekin bitartez (11/2019 Legearen 163. artikulua eta harekin bat datozenak).

Efizientzia

Araugintza-ekimena prestatzeko orduan, arrazionalizatu egingo dira baliabide materialak eta pertsonalak, eta ahalegina egingo da lehendik daudenak egokitzeko, bat etorri baliabide publikoen kudeaketan bitartekoak aurreratzeko eta arrazionalizatzeko irizpideekin; horrez gain, saihestu egingo dira interesdunei sor dakizkiekeen karga alferrikakoak eta haien jarduera ekonomikoaren murrizketa bidegabe edo neurrigabeak.

Printzipio horiek behar bezala justifikatuta geratzeko dira egingo den erregelamendu-proiektuaren hitzaurrean.

3.- Ordenamendu juridikoan izango dituen eraginak.

Garatuko den arauak ez du inolako eraginik izango ordenamendu juridikoan, Euskadiko Kooperatiben Lege berria garatzeko lege-agindua betetzeaz harago.

Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak berak, xedapen indargabetzailean, berariaz indargabetu zituen, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legea eta Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legea ez ezik, 11/2019 Legean bertan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko arau guztiak ere.

Hori dela eta, beharrezkoa da beste arau batekin ordezkatzeari aurreko araua, hots, 58/2005 Dekretua, ekainaren 24ko Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legearen Erregelamendua onartzen duena; izan ere, lege berria indarrean sartzearekin bat, aldatu egin dira orain garatu beharreko gaiak.

4.- Proiektatutako arauarekin edo aurreko puntuan adierazitakoaren arabera eraginpean dauden arauekin lotutako ebaluazioak, inpaktuari, emaitzei eta bestelakoei buruzkoak.

Arau berriak sakonago garatuko ditu legean minimoki arautu diren alderdiak, eta xehetasun handiagoz jasoko ditu Euskadiko Kooperatiben Lege berriaren bidez aldatu diren gaiak. Beraz, arau berriaren helburua da lehendik indarrean den beste arau bat osatzea, baina funtsezko aldaketarik egin gabe emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez; hori dela eta, baliteke inpaktuari buruzko txostena egin beharrik ez izatea.

Izan ere, arau "nagusia" idatzi zenean, jada egin zen ebaluazio hori, hau da, aztertu zen arau-proposamenak zer eragin izan zezakeen emakumeen eta gizonen egoeran; geroago, Emakundek txostena eman ondoren, ebaluazioa osatu egin zen, eta horrek eraginak izan zituen gaur egun indarrean den arau-testuan.

Araugintza-ekimen honen oinarria, beraz, legeria errealitate berrietara etengabe egokitzeko beharra da; era berean, interesgarria da legea prestatzean emakumeen eta gizonen egoera desberdinari buruz egin zen diagnostikoa eguneratzea eta aztertzea orain, legea garatzeko izapidean dagoelarik, generoaren arabera inpaktuari buruzko txostena eginez.

Emaitzen ikuspegitik, kontuan hartuta zein izan zen aurreko araua –4/1993 Legearen erregelamendua– eta nola balio izan zuen araua bera errazago interpretatzeko eta aplikatzeko –eta modu horretan helburuak lortzeko–, interesgarria da berriz ere ahalegina egitea eta erregelamendu bidezko lege berria ematea.

5.- Zer ondorio izango duen ukitutako administrazio publikoen aurrekontuetan, dagokion gaian, eta, halakorik bada, dagokion jarduera-sektorean.

Kooperatibak, eta bereziki lan elkartukoak, historikoki EAEko ekonomiaren zati garrantzitsu bat izan dira, kuantitatiboki eta, batez ere, kualitatiboki. Argi eta garbi erakusten dituzte gaur egun araututa dagoen gizarte-ekonomia delakoari lotutako "enpresa egiteko beste modu" horren errealitatea eta ahalmenak.

Kontuan hartuz gero bai kooperatiba-enpresen kopurua, bai haien jarduera eta sortzen duten enplegua, argi dago zeinen garrantzitsua den subjektu horiei edo haien jarduerari eragingo dien erregulazio bat izatea, batez ere aldeak badaude haien araubide ekonomikoen artean.

Halere, prozeduraren une honetan, oso zaila edo ezinezkoa da arrazoizko irizpideen arabera zenbatestea proposatzen den arauak nolako eragina izango duen ekonomia pribatuan.

Era berean, administrazio autonomikoaren aurrekontu-araubideari dagokionez, ez da aurreikusten araua indarrean jartzeak ondoriorik izango duenik aurrekontuetan, ez modu orokorrean, ez bereziki EAEko administrazio langileengan, ezta arlo horretan zerbitzu publikoak emateak dakarren kostuan ere. Nolanahi ere, gaur-gaurkoz oso zaila edo ezinezkoa da

arrazoizko moduan aurreikustea zer beste gastu egon daitezkeen edo gastuak nola murriztu daitezkeen etorkizunean, gorago eragin ekonomiko-pribatua dela eta adierazi den moduan.

6.- Izapideen eta txostenen zerrenda.

- Dekretu-proiektua idatzi aurretik, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egin zen, bat etorri Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluekin eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluekin. Kontsulta hori Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratu zen, arauaren eraginpeko herritarrek eta erakundeek aukera izan zezaten beren iritzia emateko, hala nahi izanez gero.
- Prozedura hasteko agindu hau, 6/2022 Legearen 3. artikuluko 2. paragrafoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da. Agindua argitaratzearekin batera, automatikoki jakinarazita geldituko dira gainerako sailak, eta ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ahal izango dituzte. Gainera, bat eginez Xedapenen Izapideak Egiteko Jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuarekin (1. puntua), araugintza-ekimena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio gainerako sailei eta Jaurlaritzako eragile juridikoei jakinaraziko zaie, agindu hau LEGESAREAn argitaratuta, hots, ezagutza trukatzeko lankidetzaren gunean.
- Dekretu-proiektuaren testua Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak idatziko du, agindu honetan esandakoari jarraituz, eta kontuan hartuta zeintzuk diren aukerarik onenak lortu nahi diren helburuak betetzeko, eta, hala badagokio, zer emaitza izan duten araudiaren egokitasuna eta legezotasuna bermatzeko egin diren kontsultek eta txostenek. Testuan, aintzat hartu behar dira erregulazio onaren printzipioak (39/2015 Legearen 129. artikulua eta 6/2022 Legearen 14. artikulua). Testua bi hizkuntzetan idatzi behar da. Era berean, hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabili behar da.
- Jarraian, eta behin proiektua bi hizkuntzetan idatzitakoan, generoaren araberako inpaktuari buruzko txostena egingo da, bat etorri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin, eta kontuan hartuta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakia, zeinaren bidez onartzen baitira genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen desberdintasuna ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak. Txostena Emakunderi bidaliko zaio, hark bere txostena egiteko beharrezkoa duen gainerako dokumentazioarekin batera.

- Gero, jarduketan berri emango zaio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoari, berriazko txosten juridikoa eman dezan, bat eginez Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 6.1.f) artikuluekin, eta aintzat hartuta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4 eta 5.3 artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42. artikulua.
- Ondoren, zuzendaritza-organo eskudunak 6/2022 Legearen 15. artikuluen 3. paragrafoan adierazitako arau-inpaktuaren azterketaren memoria egiten duenean, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak onartu beharko du proiektua lehenik. Aldez aurretik onartzeko agindua eta proiektuaren testua LEGESAREA ezagutzeko trukatzeko lankidetzaren argitaratuko dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan ere.
- Agindua eta testua argitaratzen direnetik hasi eta hilabeteko epean, funtsezkoak ez diren txostenak ofizioz egingo dituzte, aldez aurretik eskatu gabe, funtzio hori erregelamenduz esleitua duten organoek, bitarteko telematikoen bidez.
- Izapide horrekin batera, eta hilabeteko epe horretan berean, entzunaldi-izapidea egingo da, 6/2022 Legearen 17. artikuluen arabera. Kooperatiba-sozietateetan ordezkaritza handiena duen erakundearen bidez egingo da entzunaldia (aipatutako legearen 17.3 artikulua); hau da, EAERen kasuan, KONFEKOOP Kooperatiben Konfederazioaren bidez, bat etorri 11/2019 Legearen 164.3 artikuluekin.
- Araua eman ahal izateko, txosten hauek egin beharko dira:

Funtsezkoak ez direnak:

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2 artikuluen I) letran ezarritakoaren arabera, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2.1 artikuluari dagokionez (233/2012 Dekretua, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena).
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalerako Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 5.1.d) artikuluan jasotako eskumenak baliatuz egina.

- Emakunderen txostena, zeina lehenago ere aipatu baita.
- Enpresetan izango duen eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren txostena, 11/2019 Legearen 165.2 b) artikuluaaren arabera.

Funtsezkoak:

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, bat etorritik Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3. artikuluaekin eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 29ko 433/2013 Dekretuaren 2.1 artikuluaekin.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4.a) artikuluaaren arabera.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluaaren arabera. Dekretu-proiektuaren testua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidali aurretik, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da.
- Ez zaio txostenik eskatuko Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari, bat eginez Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 21. artikuluaekin, proiektu arauemaile honek ez dielako berriaz eragiten udalerrien eskumen propioei.
- Era berean, ez da beharrezkoa Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, aintzat hartuta 6/2022 Legearen 20. artikulua eta Lan Harremanen Kontseiluaren otsailaren 23ko 4/2021 Legearen 3.b) artikulua.
- Estatuarekiko eta Europar Batasunarekiko prozedurari dagokionez, kooperatiben arloko dekretu berri bat onartzeko ez da beharrezkoa instantzia horiei jakinaraztea.
- Azkenik, eta arauak beharrezko dituen izapideak eta txostenak amaitu ondoren – adierazi berri dira–, azken espedientea osatuko da, honako hauek jasoko dituenak: prozedura hasteko agindua, alde aurreko onarpenaren agindua lehen testuarekin, arau-inpaktuaren memoria, kontsultak, eta nahitaezko txostenak eta irizpenak. Espediente horri prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaio, eta hori guztia Gobernu Kontseiluari bidaliko zaio, onar dezan.
- Onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

7.- Itzulpen-teknika.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua eta lehen aipatutako 6/2022 Legearen 14.5 artikulua arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Agindu-proiektuak bi hizkuntzetan idatzita egon behar du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

Era berean, eta 6/2022 Legearen 27.3. artikuluari jarraituz, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, bi bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko.

8.- Instrukzioaz arduratuko den administrazio-organoa.

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza arduratuko da prozeduraren instrukzioaz, horretarako eskumenak ematen baitizkiote Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 5. eta 11. artikuluek.

9.- Urteko araugintza-planean jasotako proposamena.

Dekretu-proiektua jasota dago 2024ko ekitaldiko araugintza-planean, zeina onartu baitzuen Gobernu Kontseiluak 2024ko otsailaren 22ko bilkuran.

ORDEN DE LA VICELEHENDAKARI SEGUNDA Y CONSEJERA DE TRABAJO Y EMPLEO POR LA QUE SE INICIA EL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE APRUEBA EL REGLAMENTO DE LA LEY DE COOPERATIVAS DE EUSKADI.

El artículo 10.23 del Estatuto de Autonomía para la Comunidad Autónoma de Euskadi aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Cooperativas.

La potencialidad del cooperativismo vasco y su gran influencia en la economía propiciaron que el poder legislativo vasco trabajara, de manera muy temprana, para dotar de un instrumento jurídico propio y ajustado a esta forma peculiar de desarrollar una empresa mediante la promoción de las actividades económicas y sociales de sus personas miembros y la satisfacción

de sus necesidades con la participación activa de las mismas. Y lo hizo a través de la Ley 1/1982, de 11 de febrero, sobre Cooperativas, que además de dotar de seguridad jurídica, daba cobertura al desarrollo de importantes proyectos empresariales, sobre todo en el sector del trabajo asociado.

Posteriormente, ante la necesidad de dirigir la regulación hacia un cooperativismo moderno y de progreso, tanto económico como social, surgió la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi. Esta Ley, durante los veintiséis años de su vigencia, ha significado un paso decisivo en la consolidación de un modelo jurídico cooperativo ajustado a las necesidades contemporáneas de las cooperativas vascas, a la par que ha posibilitado nuevos desarrollos necesarios para su afianzamiento en mercados cada vez más globalizados en los que han de competir.

La exigencia de una legislación adecuada ha obligado a una permanente adecuación legislativa, siendo por ello, la Ley 4/1993 modificada en diversas ocasiones para adaptarla a los nuevos desafíos: Ley 1/2000, de 29 de junio, de modificación de la Ley de Cooperativas de Euskadi; Ley 8/2006, de 1 de diciembre, de segunda modificación de la Ley de Cooperativas de Euskadi; Ley 6/2008, de 25 de junio, de la Sociedad Cooperativa Pequeña de Euskadi; además de las normas de desarrollo, entre las que se encuentra, el Decreto 58/2005, de 29 de marzo por el que se aprueba el reglamento de desarrollo de la Ley.

En este contexto de dispersión normativa surge la reciente Ley 11/ 2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, que trae causa de la necesidad de refundición de los textos legales que han ido modificando la Ley 4/1993 sucesivamente en el tiempo, y ello por razones de sistematicidad y facilidad en la identificación y aplicación de la norma en vigor, agregando un nivel de seguridad jurídica necesaria en la interpretación y aplicación de la norma cooperativa.

Ahora bien, dada la imposibilidad de la configuración íntegra en sede legal de todos los aspectos regulatorios de las cooperativas, unida a la realidad económica, cada vez más globalizada y que muta constante y rápidamente, se hace necesario, al igual que se hizo con su antecesora, poner en marcha un desarrollo normativo de la Ley 11/2019, de 20 de diciembre.

